

**GOBERNU JUNTAK 2016.11.08an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
MARIA UBARRETXENA CID
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
OÑATI

ETORRI GABEAK

IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2016ko azaroaren 8an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2016ko urriaren 18an egindako bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2016ko Aurrekontu Orokorraren jarraipena

Hasteko, kontu-hartzaileak 2016ko Aurrekontu Orokorraren exekuzio egoeraren berri eman du. Gobernu Junta jakinaren gainean geratu da.

Jarraian, ondorengo kreditu-aldaketa onartzea proposatu du:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 3000.143.162.20.01 2016	Aldi baterako interinoak	133.630,62	35.000,00	168.630,62
1 3004.131.162.10.01 2016	Behin Behineko Langileak	22.286,43	50.000,00	72.286,43
GUZTIRA		155.917,05	85.000,00	240.917,05

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 3003.396.162.10.01 2016	Selektiba Urdinen Kudeaketa Ecoembes	5.000,00
c	2 3003.396.162.10.03 2016	Selektiba Oriaren Kudeaketa Ecoembes	45.000,00
c	2 3003.396.162.10.06 2016	Ontziak atez-atez ECOEMBES	30.000,00
c	2 3003.396.162.10.08 2016	Papera atez-atez ECOEMBES	5.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			85.000,00

KODEEN AZALPENA

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- Sarrera berri edo handiagoak.
- Kredituen baliogabetze baja.
- Kreditu eragiketak.

Gobernu Juntak aho batez onartu du aipatu kreditu-aldaketa.

2.2.- Hainbat Ordenantza Fiskalen aldaketa

Arriskutsuak ez diren hondakinen zabortegi zerbitzua emateagatik eta edukiontzietan galdutako gauzak bilatzeagatik kobratu beharreko tasak aldatzeko proposamena ikusita.

Eta txosten tekniko-ekonomikoa ikusirik, Gobernu Juntak, aho batez, zera ERABAKI DU:

1) Honako Ordenantza Fiskal hauek aldatzeko espedienteari hasierako onespena ematea.

- **Hondakin ez arriskutsuen zabortegi zerbitzua emateagatik tasen Ordenantza Fiskala.**

Ordenantza honen tarifa eranskina aldatzea, honela geratuko delarik finkatuta:

KONTZEPTUA	TASA (€/Tm)
Eraikuntza eta eraispeneko hondakin garbia. Adreiluak, teilak, hormigoia, zeramika-gaiak, zementua, eskaiola, harri-lana, axuleiua eta antzekoak, beste osagairik nahastuta izan gabe.	9,51 €/Tm
Indusketa-soberakin garbiak. lur garbiak, lurzoruak, haitzak, harri xehea, balasto edo legarra, hondarrak, harria, beste osagairik nahastuta izan gabe. Ekoizle bakoitzeko eta urteko: <ul style="list-style-type: none"> • ≤ 500 Tm. • 501-2.000 Tm. 	14,54 €/Tm 38,01 €/Tm
Poluitutako indusketa soberakin edo eraikuntza eta eraispeneko hondakinak. Hondakin arriskutsuak ez diren, baina behar diren ikerketak egin eta gero, eta indarrean dagoen legeriaren arabera, poluitutako materialak bezala klasifikatzen direnak, beste osagairik nahastuta izan gabe.	38,01 €/Tm
Arriskutsuak ez diren industria hondakinak. Industria-prozesuetatik datozen hondakinak, homogeneoak, inolako nahasturarik gabeak: <p>(A) Hondakin trinkoak, adibidez, aurre-balorizatutako zepa edo eskoriak, galdaketa-hondarrak, labe garaietako eta metal-galdaketako erregogorrek eta antzeko hondakinak.</p> <p>(B) Areiak baino bikor finagoa duten hondakin industrialak, lokatzak eta hauen bezalako konportaera fisikoa izan dezaketen beste hondakin batzuk.</p>	12,25 €/Tm 17,27 €/Tm
Arriskutsuak ez diren hondakin-nahasturak: <ul style="list-style-type: none"> • Arriskutsuak ez diren industria hondakinak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakin garbiak, edota indusketa-soberakin garbiak beren artean nahasiak edozein proportziotan. • Arriskutsuak ez diren hondakinak, goma, kautxua, beira, erratze hautsak edo onargarria den beste edozein hondakin, edozein proportziotan. 	64,91 €/Tm
Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak (EEH) tratatzeko instalazioetatik datozen hondakinak	64,91 €/Tm



KONTZEPTUA	TASA (€/Tm)
<p><i>Dohainik onartuko dira eraikuntza eta eraispeneko hondakin, indusketa-soberakin edo nahasturen bi ekaraldi gehienez hilean, etxeko lan txikietatik sortuak, betiere Gehienezko Pisu Baimendua (PMA) 3.500 kiloko duten ibilgailuetan ekartzen badira eta industria-hondakinak, poluitutako eraikuntza eta eraispeneko hondakinak edo poluitutako indusketa soberakinak ez baldin badira.</i></p>	<p><i>Dohainik</i></p>
<p><i>Onartuko ez diren hondakinak.</i> <i>Ez dira onargarriak ez bakarrik, ez beren artean nahastuta, ez beste hondakin batzuekin nahastuta:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Debagoieneko Mankomunitateko eskualde eremuan sortu ez diren hondakinak.</i> • <i>Indusketa soberakin garbiak: ekoizle bakoitzeko eta urteko 2.000 Tm baino gehiago.</i> • <i>Zura edo egurra (sabai izuna barne).</i> • <i>Papera eta kartoia.</i> • <i>Plastikoa.</i> • <i>Metala.</i> • <i>Hondakin arriskutsuak, eta horiek eduki dituzten ontziak barne.</i> • <i>Hondakin organikoak.</i> • <i>Zaborrak, etxeko hiri-hondakinak.</i> • <i>Erabileratik kanpoko pneumatikoak.</i> • <i>Altzariak eta tresnak.</i> • <i>Baimenik gabeko industri hondakinen nahasteak.</i> • <i>Kale-garbiketako hondakinak.</i> • <i>Poluitutako indusketa soberakin edo eraikuntza eta eraispeneko hondakinak, lur edo material garbiekin edo beste arriskutsuak ez diren hondakinekin nahasiak edozein proportziotan.</i> • <i>Oro har, Debagoieneko Mankomunitateak onartzeko ezarri dituen baldintzak betetzen ez dituzten hondakin guztiak.</i> 	<p>EZ ONARGARRI</p>

- **Edukiontzietan galdutako gauzak bilatzeagatiko tasaren Ordenantza Fiskala.**

Ordenantza hau aldatzea, ondorengo testuaren arabera:

**EDUKIONTZIETAN GALDUTAKO GAUZAK BILATZEAGATIK ORDAINDU
BEHARREKO TASAREN ORDENANTZA FISKALA**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1.artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2.artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3.artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III.SUBJETU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjeto pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru arau erregulatzailan definitutakoak.

5. artikulua.-

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a. Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.*
- b. Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.*

6.artikulua.-

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonen ere erantzungo dute

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7.artikulua.-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V.OINARRI EZARGARRIA

8.artikulua.-

Oinarri ezargarri zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI.KUOTA

9. artikulua.-

Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.-

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren jasotakoa aplikatuko da.

VII. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du.

ERANSKINA

EDUKIONTZIETAN GALDUTAKO GAUZAK BILATZEAGATIKO TASA

- **Begi bistaz edukiontzia hustu gabeko bilaketa zerbitzua**

Tarifa bakarra: 20 €/zerbitzua.

Aurrez eskatu eta tasa ordaindu ondoren egingo da zerbitzua, eta edukiontzia edukia deskargatu gabe bilatuko da, galdutako gauza. Ez da bermatzen galdutako gauza hori aurkituko denik, ezta ere egoera onean egongo denik.

- **Edukiontzia hustuta, bilaketa zerbitzua**

Tarifa bakarra: 70 €/zerbitzua.

Aurrez eskatu eta tasa ordaindu ondoren egingo da zerbitzua, eta edukiontzia edukia deskargatu eta galdutako gauza bilatuko da. Ez da bermatzen galdutako gauza hori aurkituko denik, ezta ere egoera onean egongo denik.

- 2.- Erabaki hau eta horretarako bideratutako espediente informazio publikorako aurkeztea 30 lanegunez, interesatuek aztertu eta bidezko iruditzen zaizkien errekamazioak aurkeztu ahal izateko.
- 3.- Hasierako erabaki hau, beste erabakirik hartu beharrik gabe, behin betiko onartuzat ematea, errekamaziorik ez bada aurkezten.
- 4.- Bisita gidatuen zerbitzua emateagatik tasen aldaketa mahai gainean uztea.

2.3.- Foru Kontratazio Zentrala; hainbat kontratu luzatzea

- **Eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua emateko kontratua luzatzea.**

Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko foru diputatuak, 2014ko azaroaren 25eko Foru Aginduaren bitartez, ebatzi zuen GIROA, S.A.U. enpresarekin burutzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua kontratatze esparru akordioa", hasieran bi urterako, baina urtebeteko bi alditan gehienez luza daitekeena.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen.

Foru Aldundiak Esparru Akordioa beste urtebetez luzatzea proposatu duenez, eta Mankomunitateak zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebaztea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea Mankomunitate honek eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua emateko GIROA, S.A.U. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.
- **Lan arriskuen prebentzio zerbitzuko 1 lotea, osasun zaintza, zerbitzua emateko kontratua luzatzea.**

Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko foru diputatuak, 2014ko azaroaren 11ko Foru Aginduaren bitartez, ebatzi zuen FREMAP SEGURIDAD Y SALUD, S.L. enpresarekin burutzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez lan arriskuen prebentzio zerbitzuko 1 lotea, osasun zaintza, kontratatze esparru akordioa", hasieran bi urterako, baina urtebeteko bi alditan gehienez luza daitekeena.



Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen.

Foru Aldundiak Esparru Akordioa beste urtebetez luzatzea proposatu duenez, eta Mankomunitateak zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebaztea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea Mankomunitate honek osasun zaintza zerbitzua emateko FREMAP SEGURIDAD Y SALUD, S.L. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.

- **Ibilgailuen aseguru polizen kontratua luzatzea.**

Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2013ko abenduaren 10eko foru aginduaren bitartez, BILBAO, COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez ibilgailuen aseguru polizak kontratatzeke esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen. Kontratu honek urtebeteko indarraldia du, 2013ko abenduaren 31tik aurrera, hiru luzapen posibleekin, bakoitza urtebetekoa.

Foru Aldundiak Esparru Akordioa beste urtebetez luzatzea proposatu duenez, eta Mankomunitateak kontratatzen diren aseguru polizen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebaztea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Beste urtebetez luzatzea ibilgailuen aseguru polizak kontratatzeke BILBAO, COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria, hau da, 2017ko abenduaren 31 arte (24:00).

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- "Epeleko zabortegian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua" gauzatzeko kontratazio espedienteak; Segurtasun eta Osasun Planaren onespina lehendakariaren esku uztea

Obra honen presa kontuan hartuta, eta lehenbailehen hasteko helburuarekin, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitateko lehendakariaren esku uztea obra honen Segurtasun eta Osasun Plana onartzea.

3.2.- Papera eta kartoia saltzeko kontratazio espedientea

Mankomunitatea osatzen duten 8 udalerrietan edukiontzi urdinetan, atez ate, denda eta industrietan eta Garbiguneetan jasotako papera eta kartoia saltzeko bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartzea.
3. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

3.3.- Zur-hondakinak kudeatzeko URKIONDO EKOLUR, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Mankomunitate honek zur-hondakinak kudeatzeko URKIONDO EKOLUR, S.L. enpresarekin 2015eko azaroaren 9an sinatutako kontratuaren hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera, eta kontratistaren adostasunarekin, Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipaturiko kontratua beste urte betez luzatzea, hau da, 2017ko azaroaren 8ra arte.

3.4.- Plastikohondakinak kudeatzeko BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Mankomunitate honek plastikohondakinak kudeatzeko BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin 2015eko azaroaren 9an sinatutako kontratuaren hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera, eta kontratistaren adostasunarekin, Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipaturiko kontratua beste urte betez luzatzea, hau da, 2017ko azaroaren 8ra arte.

3.5.- Poltsa konpostagarriz hornitzeko ID WASTE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Mankomunitate honek etxeko hondakinak jasotzeko poltsa konpostagarriz hornitzeko ID WASTE, S.L. enpresarekin 2015eko abenduaren 18an sinatutako kontratuaren hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera, eta kontratistaren adostasunarekin, Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipaturiko kontratua beste urte betez luzatzea, hau da, 2017ko abenduaren 17ra arte.

3.6.- Errefuxaren transferentzi planta Elgoibarrera eramateko GHKren proposamena

Landerrek errefuxaren transferentzi planta Elgoibarrera eramateko GHKren proposamenaren eta izandako elkarrizketen berri eman du.

3.7.- Ekoizle txikien hondakin arriskutsuak kudeatzeko 2017rako Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen lankidetzaren hitzarmenari atxikitzea

Ekoizle txikien hondakin arriskutsuak kudeatzeko, Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen eta EKO GUARDI, S.L. hondakin arriskutsuak kudeatzeko baimendua dagoen enpresaren artean izenpeturiko Hitzarmenaren esparruan, aipaturiko Merkataritza Ganbarak egindako lankidetzaren proposamen berria ikusirik.

Eta Hondakinen Kudeaketa Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

1. 2017. urtean ere aipaturiko Hitzarmen horri atxikitzea, Merkataritza Ganbarak egindako lankidetzaren proposamenean ezarritako baldintzetan.
2. 2017rako finkaturik dagoen kuota (1.960 €, gehi BEZ) ordaintzea.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; eskaera berri bat eta hainbat luzapen

- Eskaera berria; J. J. I. Y.

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da; enpresen kapitalizaziorako eta hazkunderako aholkularitzarako.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, eta kontuan izanda eskaera honek Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 5garren artikuluan ezarritako gutxienezko puntuazioa gainditu duela, 37 puntu lortu baititu, baina une honetan ez dagoela zerbitzu modularik libre, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- J. J. I. Y. jaunaren eskaera itxarote-zerrendan uztea.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- Luzapena; M.A.F.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2017ko urriaren 31 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 3-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, M.A.F. andreari emana, Gobernu Juntaren 2014ko urriaren 23ko erabaki bitartez.

- Luzapena; M.P.V.G.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2017ko azaroaren 30era arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 8-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, M.P.V.G. andreari emana, Gobernu Juntaren 2014ko urriaren 23ko erabaki bitartez.

4.2.- Oinarrizko Lanbide Heziketa Programa

Garapen Agentzia Batzordearen proposamena irakurri da. Mahai gainean gelditu da.

5.- KIROL EKINTZEN KOORDINAZIOA

5.1.- Osakidetzako Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuarekin deklarazio bat sinatzeko proposamena

Kiroletako Informazio Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuarekin ondorengo deklarazioa sinatzea, ondorengo testuaren arabera:

“Osasunaren Sustapena Ottawako gutunean honela definitu zuten “pertsonak eta komunitateak ahalduntzeko prozesua, haien osasuna erabakitzen duten faktoreen gaineko kontrol handiagoa izan dezaten, osasuna hobetzeko asmoz”

Gaur egun ebidentzia askok adierazten dute pertsonen osasuna ez dagoela ezaugarri indibidualen mende soilik, baizik eta bizi diren testuinguruarekin lotutako faktore tarte zabala dagoela. Osasunaren determinatzaile sozialen ereduak, ezaugarri indibidualez gain, pertsonen osasunean eragiten duten faktore gisa honako hauek ere sartzen ditu: hezkuntza, enplegua, etxebizitza, ingurumena, sare sozialak, oinarrizko zerbitzu eta ondasunetarako sarbidea, baita bizi diren baldintza sozioekonomikoak ere.

Osasunaren ikuspegi osoa izateko, baldintza sozial eta ekonomikoak arautzen dituzten sistema eta egitura guztiek, baita ingurune fisikoak ere, jarduera horiek osasunean eta



ongizate indibidualean eta kolektiboan dituzten eraginak eta inplikazioak kontuan hartu behar dituzte.

Horrek esan nahi du osasuna sustatzea ongizatera iristeko bizitza estilo osasungarrien gainean jarduteaz harago doala, eta ez dela osasunaren sektorearen erantzukizuna soilik, eragile asko hartzen dituela baizik.

Norberaren arazo, eskaera edo beharrak lantzeko pertsonen eta taldeen gaitasuna sustatzea, osasuna sustatzen jarduteko testuinguruan, politika publiko osasungarriak egitea, osasuna ahalbidetzeko giroak sortzea, gaitasun pertsonalak garatzea, ekintza komunitarioa indartzea eta osasun zerbitzuak birbideratzea barne.

Ekintza komunitarioa indartzeak esan nahi du komunitateei laguntzea osasuntsu egoteko zer behar duten jakiteko eta helburu horiek nola lortu erabakitzeko bideak topatzen. Herritarren partaidetza aktiborik gabe, herritarrek ezin dute osasunaren eta determinatzaileen kontrolaren ardura hartu.

Partaidetzak erantzukizun partekatua dakar, eta komunitatearen jarrera aldatzea, eskakizunak soilik adierazi ordez, lidergo handiagoa egitera pasatu eta arazoak nahiz beharrak identifikatu eta irtenbideak bilatzen parte hartze aktiboa izatea. Ekimenak iraunkorrak izateko garrantzitsua.

Komunitateko partaidetzaren bidez, komunitate bateko banakoek eta erakundeek gatazkak komunitate barruan lantzen dituzte, eta eragin eta kontrol handiagoa hartzen dute komunitatearen osasunaren determinatzaileen gainean.

Hiru eragile daude inplikaturik komunitateko partaidetza prozesu batean:

- *Administrazioa, legediaren, plangintzaren eta finantziarioaren mende dagoena. Eredu horretan, udalerririk funtsezko rola du; tokian bertan, herritarrengandik gertu, haien beharrak ezagutzen ditu eta osasuna sustatzeko proiektuak eta jarduerak sustatzeko gai da.*
- *Osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak... Arazoei aurre egiteko komunitatek dituen teknikari eta profesionalak daude horietan.*
- *Elkarteen ehuna eta herritarrak. Horiek dira prozesuaren protagonista nagusiak.*

Eragile horiek elkartzearen mende egongo da, beraz, martxan jarritako jardueren arrakasta. Alde batetik, udalerrira eragile nagusia da prozesu horien lider izateko eta haien iraunkortasuna bermatzeko, herritarren beharrezko partaidetzaren alde lan eginez, ehun soziala eratzen duten kolektibo eta pertsona ugari sartzen saiatuz. Bestalde, gure euskal osasun sisteman Erakunde Sanitario Integratuak (ESl) eratzera bideratutako integrazio estrategia ari dira garatzen. Bestalde, euskal osasun sistema aipatutako alderdietan eragina duten komunitateko osasunaren eremuan esku-hartze ugari ari da egiten. Hala, tokian bertan esku-hartze horiek ahalbidetzera bideratutako sinergiak sortzea izango litzateke helburua, eta gerora beste eragileak txertatzea, hala nola hezkuntza eremuan, askotariko elkarteak, enpresak, herritarrak oro har, **Tokiko Osasun Sareak** izenekoak eratzeko.

Esku-hartze horiek egoki garatzeko, ildo batzuk ezarri behar dira, nolabaiteko eragingarritasuna eta homogeneousotasuna bermatzeko, bai landu beharreko esku-hartze motetan, bai horiek egiteko metodologietan.

Testuinguru horretan, bi alderdiek

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE:

Osasuna sustatzeko esku-hartze komunitarioak sustatzeko interesa dute, udalerrriak lider izanik, eta Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak Debagoieneko udalerrri bakoitzean Tokiko Osasun Sarea sortzea bultzatuko dute, herritarren partaidetza bidez eta komunitateko beste erakunde batzuekin sinergiak bilatuz. Komunitatearen esku-hartze horiei metodologia egokia emango zaie eragingarritasuna bermatzeko, eta batez ere esku-hartze horien diseinua, ebaluaziorako mekanismoak eta lehentasunak ezartzeko prozesu eta ebaluaziorako mekanismo egokiak ezarriko dira.

Tokiko Osasun Sare horiek sortzeko eta martxan jartzeko, aldez aurretik akordioak egin eta, egoki izanez gero, dagozkion Hitzarmenak izenpetu beharko ditu Udal bakoitzak. Hitzarmen horietan zehaztuko dira alderdi bakoitzak garatu beharreko zereginak eta izango dituzten erantzukizunak.

Udal bakoitzak garatu beharreko **jarduera orokor** hauek martxan jartzea iradokitzen dugu:

- **Tokiko Osasun Sare horiek eratzeko beharrezko urratsak ematea.**
- Pixkanaka komunitateko beste eragile batzuk sartzea, hala nola eremu sozialekoa, hezkuntza arlokoa, Elkartek, bai osasunaren ingurukoak, bai bestelako gizarte arlo batzuetakoak, eremuan dauden enpresak, Aldundia eta abar.
- Ariketa fisikoa egitearekin eta sedentarismoa murriztearekin lotutako osasuna sustatzeko jarduerak martxan jartzea, nutrizioarekin lotutako gaiak eta osasun jokabideak sustatzearekin eta mendekotasunei buruzko prebentzio ekintzak.
- Eragile ugariak sentibilizatzeko jarduerak. (Zerbitzu Erakundeak, Osasun Publikoko Eskualdeak, Udalak...) jardunaldiak, hitzaldiak... (Osasuna eta haren determinatzaileak. Osasun komunitarioa. Zer da? Zertarako balio du?)
- Esku-hartze Komunitarioak eta haien ebaluazioa garatzeko Gida metodologikoa ahalbidetzea
- Komunitatearen diagnostikoa egitea. Problema identifikatzea. Gaietara eta herrietara lehentasuna ematea.
- Komunitatean dauden osasun aktiboen inbentarioa egitea
- Inplikaturako eragileei prestakuntza jarduerak garatzea (teknikari eta profesionalak, herritarrak, komunitateko beste eragile batzuk) Gida aurkezteko tailerrak. Jardunbide egokien adibideak...
- Esku-hartze Komunitarioko Planak ezartzeko kanpoko finantziario iturriak bilatzea.

Honako **jarduera edo programa espezifiko** hauek martxan jartzea ere iradokitzen da; udalerrri bakoitzak baloratu eta lehenetsiko ditu egoeraren arabera:

• **Tokiko Osasun Sareak**

Eusko Jaurlaritzak, gizarte aktiboagoa sortzeko, MUGIMENT izeneko sektore arteko ekimena jarri du martxan.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Enplegua eta Gizarte Politika Sailak eta Osasun Sailak batera lan egiten duten ekimen honen barruan, lehen estrategia sustatu dute; MUGISARE edo OSASUNSAREAK.

MUGIMENTetik sortutako ildo horren helburua da tokiko komunitateko sarea sortzea eta garatzea, eta horren inguruan landuko dira gainerako estrategiak.

• **Haurren obesitatean esku hartzeko PENSOI programa integratua.**

Pensoi programa Lehen Hezkuntzako ikastaroetan eskolarako planteatuta dago eta hiru dimentsio ditu: indibiduala edo klinikoa, elikadura osasungarrirako hezkuntza eta jarduera fisikoa sustatzea.

(1) Esku-hartze indibiduala Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) Pediatriako Klinika Kudeaketako Unitateak kudeatutako haur obesitatearen klinikaren eremuan garatzen da.

ESlko osasun zentroetatik bideratzen dituzte haurrak bertara, GMIren (Goputz Masaren Indizea; Orbegozo Fundazioaren kurbak) sailkapenaren arabera obesitate-irizpidea betetzen dutenean. Elikaduraren arloko aholkularitza eta laguntza ematen dute bertan, haur bakoitzaren egoera zehaztetara egokituta. Jarduera fisikoari lotutako aholkularitza ere egiten dute, eta behar izanez gero, udalerriko kiroltako teknikariarengana bideratzen dute, aholkularitza indibiduala egin diezaion. Klinikaren jarraipena hilean behingoa edo hiru hilean behingoa da, kasuaren arabera. Kontsulta klinikoaren helburua da GMI murriztea elikadura ohiturak aldatuta eta ariketa fisikoa eginda, estigmatizatu gabe eta autoestimua hobetuta.

(2) Elikadurarako hezkuntzak eskolatik hiru jarduera lantzen ditu, hain zuzen ere, fruta kontsumitzearekin, ura kontsumitzearekin eta eskolako ospakizunekin lotutakoak. Fruta kontsumitzearekin, ura erabiltzearekin eta urtebetetzeekin eskoletako egoera biltzen duen mapa bat egitea, fruta kontsumoaren, uraren erabileraren eta urtebetetzeen programa ezartzeko akordioa eta elikadurarako hezkuntzari buruzko esku-hartzea gurasoei zabaltzea jasotzen du.

(3) Gorputz heziketaren sustapena eskolako kirol eskaintza zabaltzean oinarritzen da, hain lehiakorrek ez diren jarduerak sartuz, kirol gaitasun ez hain onak dituzten eskolako haurrentzat erakargarriak izan daitezten. Elementu hauetan zehazten da: Obesitate arazoak dituzten haurrak udalerriri ugarietan eskola kiroltako programetan sartzea, kirol aholkularitza fisikoaren zerbitzu iraunkorra ezartzea Debagoieneko ahalik eta udalerriri gehienetan, pediatrek haurrei egiten dizkieten galdetegietan



egiten dituzten kirol jardueri buruzko galdera sorta sartzeari, eta gomendatutako jarduerari buruzko informazio kanpaina.

• **“Kirol errezetaren” garapena**

Jarduerari fisikoa agintzeko sistema bat da, eta osasun zentroan lan egiten duten osasun profesionalen lana eta Udaletako kirol instalazioetan lan egiten duten jarduerari fisikoa arloko profesionalena elkarrekin harremanetan jartzen du.

Proiektu honen helburua da jarduerari fisikoa sustatzea eta programan zehaztu diren arrisku faktore eta/edo patologiarren bat duten herritarren ohitura sedentarioak eraldatzea, hala, pertsona aktiboen ehunekoak handituz eta Osasunaren Munduko Erakundeak ezarritako gutxienezko gomendioak betez.

• **Erorikoak prebenitzeko tailerrak**

Erorikoak prebenitzeari dagokionez ebidentzian oinarritutako jardunbide egokiak frogatzen dute %38 murriztu daitezkeela lesioak adineko pertsonengan metodo kostu-eragingarriekin.

Helburuak:

Adineko pertsonen erorikoetan eragina %5 murriztea.

Istripuak prebenitzeko tokiko lankidetzaren mekanismoak ezartzea

Lurralde historiko bakoitzeko udalerrietan erorikoak prebenitzeko esku-hartze komunitarioaren ereduak pilotatzea.

Metodologia:

Udalerrian lantalde bat ad hoc sortzea. Talde horietako partaide izan daitezke: udal teknikariak, osasun publikoko profesionalak eta osasun zentroetakoak, adinekoen elkarte mugimenduetako kideak

Adinekoen erorikoak prebenitzeko informazio materiala prestatzea eta zabaltzea.

Parametro jakin batzuetan sartzeari detektatu eta Lehen Arretako Zentrotik eratorritako pertsonak izango dira, eta han, aholkularitza pertsonalizatuaren bidez (udalerriko mailako Jarduerari Fisikoko eragilea), haien beharretara egokituak jarduerari fisikoa egiten hasiko dira.

• **Tabakoaren ohiturari buruzko prebentzio jarduerak**

Prebentzio jarduerak Debagoieneko ESI

- Ohitura kentzeko informazio hitzaldiak, banakakoak eta taldekoak, eskualdeko botiketan, urtarrilaren 13an.



- *Tabakoaren ohitura kentzeko taldeko jarduerak*
- *Hezkuntza arloko esku-hartzea nerabeekin, unibertsitateetan, ikastoletan.*
- *Bilera Euskadiko ESletako tabakoaren erreferente guztiekin.*
- *Debagoieneko/udalerritako/osasun publikoko lantaldeen bilera.*
- *Kerik gabeko erakunde sanitarioen euskal sarea sortzeko-jakinarazteko bilera*

• **Tipi Tapa**

Esku-hartze programa honek estrategia hau du:

1. Elementu giltzarriak ditu: egituratu gabeko eta lehiakorra ez den jarduera fisikoa egitea aisialdi aktiboaren testuinguruan, eta ingurumenari eta gizarteari dagokionez aldeko giroa sortzea, pertsona bakoitzak nola konprometitu nahi duen erabaki dezan.

2. Osasuneko gizarte harremanetan eragin onuragarria duela kontuan izanik, elementu dinamizatzailerik gisa, laguntza informala biltzen du.

3. Tokiko komunitatean garatzen da.

Esku-hartzerako, udalerriko ordezkariak proiektuaren aurkezpena egin behar zaie aldez aurretik, eta horrek haien inplikazioa eta partaidetza ahalbidetuko du. Gainera, jarduerak garatzeko espazio irisgarriak buruzko informazioa eskuratu eta prozesatu behar da, baita adineko pertsonen bideratutako baliabide eta programen existentzia ere.

Tipi Taparen lanketa indibiduala 5 mekanismotan oinarritzen da eta horiekin partaideen atxikipena eta jarraipena areagotu nahi da. Hauek dira mekanismo horiek:

- *1. Osasun zentroko kontsultan pertsonalizatutako aholku laburra.*
- *2. Errefortzu positiboa esku-hartzean zehar*
- *3. Aholku pertsonalizatuari laguntzeko liburuxka eta material grafikoak*
- *4. Jardueraren jarraipena egiteko erregistroa*
- *5. Laguntza soziala, errefortzurako eta motibaziorako.”*

6.- LEHENDAKARITZA

6.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak.

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

16/104.- 16/34 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HOGEI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMO (420.374,52 €).

16/105.- 1.- J.T.N. kontratatzea urriaren 17an eta 18an Aretxabaletan edukiontzi berriak jartzeko, txofer-zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.



2.- A.A.G. kontratatzea urriaren 18tik aurrera Aretxabaletan edukiontzi berriak jartzeko, zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- M.A.E. kontratatzea urriaren 21ean eta azaroaren 2an D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, urriaren 26tik 29ra eta azaroaren 8an, M.S.ena, urriaren 31n, A. L.rena, eta azaroaren 5ean, A. U.rena. Garbiguneko zaintzaile lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- V.D.C.F kontratatzea urriaren 31n M.E. Epeleko zabortegiko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- G.I. kontratatzea urriaren 31n lanpostuaren zereginak ikasi eta azaroaren 2an M. L.ren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

6.- J.O.G. kontratatzea azaroaren 2tik 4ra arte J.L. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

16/106.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	2.319,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		2.319,00

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.319,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		2.319,00

Bigarrena.- Egintza au bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran"

16/107.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapituluak	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	3.500,00	2.360,00	1.140,00
GUZTIRA		3.500,00	2.360,00	1.140,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapituluak	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	3.319,00	2.360,00	5.679,00
GUZTIRA		3.319,00	2.360,00	5.679,00

Bigarrena.- Egintza au bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran"

16/108.- 16/35 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HAMAIKA MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (111.466,61 €).

16/109.- OBRAS PÚBLICAS ONAINDIA, S.A. enpresak egindako eskaera onartzea, hau da, "Epeleko zabortegiko drainatze azpiegituraren obra eta aldameneko ibarraren egonkortzearen proiektua" gauzatzeko lanak bukatzeko epea 2016ko azaroaren 15era arte luzatzea.

7.- GALDE-ERREGUAK

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:30etan, bukatutzat eman da bilkura.